# II

# LATEŔI (Lege-eŕi, aginte-eŕi)

## (Erderazko ESTADO)

7. Lateŕia (au da: Lege-eŕia, edo erderazko *Estadoa)* ¿zer da?—Aginte beraren azpian dagon gizadia. Batzutan, agintaritza berari ere esan oi-diote.

8. ¿Gauza bera al-dira Sorteŕi (edo *Nazio)* ta Lateŕi (edo *Estadoa)?*—Ez, iñola ere. Sorteŕia berez etoŕia dezu, Jainkoak sortua; Lateŕia ez da berezko, baizik gizonek egiña. Abenda edo giza-kasta bizi dan artean, bizi da Sorteŕi edo Nazioa ere. Lateŕiak, beŕiz, eŕegeen eta eŕi-menderatzaleen naikeriz zutitzen eta ondatzen dira. Sorteŕiak odolez ta izkuntzez lotzen du gizona; Lateŕi edo Estadoak, beŕiz, aginteareen bidez.

9. ¿Agerbidez azalduko al-zenidake ori?—Bai, enetxoa. Jaŕi itzazu alde batera elkaŕen anai bi; bestera, nagusi beraren bizpairu moŕoi. Anaion arteko ta moŕoion arteko lokaŕiak ¿berdiñak al-dira?... Ez: anaiek Senidetasuna dute lokaŕi; moŕoiek, beŕiz, nagusi beraren mendeko izatea. Oiek añean dira, bada, ezberdin, Sorteŕi ta Lateŕi ere.

10. Beraz ¿Sorteŕi edo Nazio bakaŕa zatitu al-